

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

Hasierako onespena ematea Done Bartolome aterpetxean eta haren inguruan eskainitako zerbitzuen eta haien erabileraren prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak, 2018ko abenduaren 5eko ohiko osoko bilkuran, hauxe erabaki zuen:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea Done Bartolome aterpetxean eta haren inguruan eskainitako zerbitzuen eta haien erabileraren prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantzaren aldaketari.

Bigarrena. Bat etorri Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako xedapenetan araututakoarekin, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorri, behin betiko onetsiko da ordenantza erreklamaziorik aurkezten ez bada, eta haren testua ALHAOn argitaratuko da.

Lagrán, 2019ko otsailaren 20a

Alkate-lehendakaria

JOSE MARIA MARTINEZ FERNANDEZ